

Lourdes Herrasti: “Saharako deshobiratze prozesuari esker, hamaika militar marokoarren kontrako epaia abian da”

Euskal Fondoak diruz lagunduta, ekainaren bukaeran Sahara Askean hainbat deshobiratze egiten ibili da Hegoak, EHUK eta Aranzadik osatutako lantaldea. Antropologoa, historialaria, irakaslea eta talde horretako partaide den Lourdes Herrastik testuinguru historikoaz, teknikaz, arazoez, harresiaz, orainaldiaz eta etorkizunaz hitz egin digu.



Ander Leon Nanclares
@andernaiz

Nolatan Sahara?

Carlos Martin Beristain betidanik interesatu da saharar herriaren egoeraz eta bertako Giza Eskubideen urraketaz. Basamortura bidaia asko egin du eta ahozko elkarrizketa ugari jaso. *El oasis de la memoria* (Oroimenaren oasia) liburuan daude bilduta gehienak. Hobi komun batzuen berri izan zuen, kokapen nahiko zehatzarekin. Tokia askatutako zonaldean dagoenez, deshobiratzeo aukera aztertzen hasi zen. Gure taldeak

garai hartan jadanik eskarmentua zuen 1936ko Gerrako hobiekin. Carlosek proposamena luzatu eta hara joan ginen lehenengo aldiz, 2013ko ekainean.

Exekutatutako pertsonen gorpuak aurkitu dituzue. Zer urtetan hil zituzten?

1976ko otsailaren 12an. Oso garrantzitsua da data hori, izan ere, Espainiak bere tropak otsailaren 27an erretiratu zituen, hau da, hil zituzten momentuan espainiarrak ziren, ondorio guztieta-





“Desagertuen senideek eramaten gaituzte eskoltatuta hobietara, inork baino hobeto ezagutzen baitute eremua. Teknikoki, hondarra kentzea besterik ez dago. Baina gorputzak nahiko azalean daudenez, askotan ez daude osorik, haizeak eraman ditu edo animaliaaren batek hondatu. Hala ere, lehortasunak oso egoera onean mantendu ditu eta metodologia ohikoa izan da, arkeologikoa”.
Lourdes Herrasti

rako. 1957tik Sahara Espainiako probintzia zen, hego euskal herritar baten nortasun agirian lurraldea Gipuzkoa jar dezakeen bezala, beraienean Mendebaldeko Sahara zegoen idatzita. Hori oso baliogarria izango da gertaerak auzibidera eramateko momentuan.

Sahara deskolonizatzeke legea 1975eko azaroaren 20an argitaratu zen Espainiako BOE aldizkari ofizialean, ez zen giro...

Franco hil zen egun berean, pentsa... Franco eta frankismoa bera gaixo zeudela aprobetxatuz, Sahara hartzeko mugimenduak hasi ziren: iparraldetik Maroko eta hegoaldetik Mauritania. Garaiko erregeak, Hassan II.ak, 1975eko urrian *Martxa Berdea* abiatu zuen. Ustez zibilez osatutako zutabeak ziren, Saharan ezartzeko asmoz. Espainiako Estatuaren ahulezia agerian geratu zen eta lurrrak inbaditzen hasi ziren. Marokorena gezurrezko propaganda zen ordea, zibilekin batera ejertzitza eta polizia sartu baitziren sahararren lurraldeetan. Sartu ez ezik, giza eskubideen urraketa larriak egin zituzten, bahiketak, hilketak, torturak... Toki batzuk ere bonbardatu zituzten, adibidez Tifariti, gu lanean ibili ginen hiria edo Oum Dreyga, gaur egun harresian bertan dagoena. Testuinguru horretan gertatu ziren aipatutako hilketak, espainiarren utzikieriaz baliatuz, inolako kontrolik gabe.

Hobien kokapen zehatza lekuko batek eman zizuen, zer historia dago atzean?

Pertsona hori artzaina zen eta umea zela soldadu marokoarrek atxilotu zuten, beste batzuekin. Hain gaztea izanik soldadu batek, errukiz edo, bizirik ateratzeko aukera eman zion "Gora Maroko! Gora Hassan!" oihukatuz gero. Umeak halaxe egin zuen eta kamioian manta baten azpian ezkutatu zuen soldaduak. Bertatik detonazioak entzun zituen eta bazekien tokia non zen, Amgalan, marokoarrek eraikitako harresitik oso hurbil. Ume hori gaur egun heldua da eta berak eraman gintuen gorpuak zeuden tokira.

Aipatu duzun harresia ez da oso ezaguna...

Gizakiak eraikitako historiako bigarren harresirik luzeena da, Txinakoaren atzetik. 2.700 kilometrotik gora du eta Sahara okupatua eta Sahara askea bereizteko sortu zuen Marokok, 1980tik 1987ra. Milaka soldaduk zaintzen dute



"Gizakiak eraikitako bigarren harresi luzeena –Txinakoaren atzetik– Sahara okupatua eta askea bereizteko sortu zuen Marokok 1980tik 1987ra: 2.700 kilometrotik gora du".

ANDER LEON

eta eremu minatua da, gaur egun oraindik jende asko mutilatzen dute lehergailuek. Kaltetuenak haur beduinoak izaten dira. Horren ondoan egin genuen guk lehenengo lana. Ez ginen soldadu marokoarrek gehiegi fidatzen, horregatik mozorrotuta joan ginen, mauritaniar artzain nomadek janzten dituzten arropak erabiliz. Sei gorpu aurkitu genituen, haietako bi hamabost urteko mutikoak ziren; identifikatzea oso erraza izan zen dokumentuen bidez.

Hala ere, laginak atera ostean, bertan hobiratu genituen berriz. Oso gertu, berrehun metrora edo, beste hobi bat zegoen bi pertsonen gorputzekin. Espainiar nortasun agiria zeukaten soinean, beraz euren identitatea argia zen. Laginek eta DNAk ziurtatu zuten bi pertsona horiek dokumentatutako berak zirela. Orotara zortzi pertsona atera eta zortziak identifikatuta. Buru-hezurra eta gorputzeko hainbat ataletan zeuzkaten zuloengatik demostratu ahal izan genuen tiroz hil zituztela.

Iheslariak izango ziren akaso?

Aljeriara, Tinduf aldera, okupazioetik ihesean zihoazen beduinoak izango ziren ziurrenik, nomadak. Marokoar patruila batekin topo egin eta halaxe

amaitu zuten. Bigarren bidaia batean bi borrokalariaren gorpuak ere aurkitu genituen Fabret Leguian izeneko tokian, borrokan ibili zirela ondorioztatu ahal izan dugu beraien inguruan aurkitutako munizio kopuruagatik. Tamalez ezin izan ditugu identifikatu. Bai ordea beraien ondoan zegoen beste bat: 1976an hil eta 2013an aurkitu dugu.

Sahara Askea aipatu duzu, zein da orain-gogera administratiboa?

Sahararrak hiru lurraldetan daude banatuta. Batzuk Tinduf hiriaren alboko kanpamentuetan daude, errefuxiatuak dira eta beraien herrialdetik kanpo bizi dira Aljeriako lurretan. Saharako lurrrak bi zonalde ditu, okupatua, Marokoren agindupean dagoena, eta Askea, gobernu sahararrak kontrolatua. Tartean dago lehen aipatu dudana harresia, iparraldetik hegoaldera. Gure lana zonalde askean egin dugu Tindufetik sartuta. Jakin badakigu zonalde okupatuan hobi gehiago daudela baina hor ez dago zer eginik momentuz.

Antolaketa eta azpiegitura aldetik ez da erraza izango halako lanak egitea.

Guk AFAPREDESAko (Preso eta Desagerturiko Sahararren Senitartekoen El-

kartea) kideen bidez egiten dugu lan. Dokumentazioa beraiek dute eta identifikatzea ere dauzkaten datuak erabiliz egiten da. Beraiek eramaten gaituzte eskoltatuta hobietara, inork baino hobeto ezagutzen baitute eremu hori. Teknikoki lan egitea hemen [Euskal Herrian] baino errazagoa da, hondarra kentzea baino ez dago. Baina gorputzak nahiko azalean daudenez, askotan ez dira osorik egoten, haizeak eraman ditu edo animalia-aren batek hondatu. Hala ere, lehortasunak hezurak oso egoera onean mantendu ditu eta metodologia ohikoa izan da, arkeologikoa.

Hartutako datuekin zer egiten duzue?

Dokumentatu eta txostenak egiten ditugu. Libre daude eta nahi duenak eskuragarri ditu, gure asmoa informazio hori ahalik eta gehien zabaltzea baita. Baina ez hori bakarrik, sahararrek, txostena eskutan, Espainiako Auzitegi Nazionalean salatu zituzten hilketak, eta Pablo Ruz epaileak Carlos Martin Beristain eta Pako Etxeberria deitu zituen deklarazioa hartzeko. Informazio horrekin guztiarekin eta deshobiratzeei esker, hamaika kargu militar marokoarren kontrako epaia zabaldu zuen 2015ean eta, gaur egun, mundu osoan dago pertsona horiek atxilotzeko agindua. Oinarria, espainiar hiritar batzuen kontrako giza eskubideen urraketa da. Hor dago egia judiziala.

2018ko ekainean itzuli zarete, egoera bera aurkitu duzue?

Beste hiru hobiren berri izan genuen eta bueltatzea erabaki genuen. Egoera ezberdina izan da: hobi bakoitzean pertsona bakarraren gorputza zegoen eta hirurak emakumeak ziren. Mehe- resen aurkitu dugu lehenengoa, haima batzuetatik oso gertu; kasu horretan ere artzainek antzeman zuten hobia. 30 urtetik gorako emakumea zen eta ez zuen apenas objekturik, gandora baten kremailera besterik ez. Bigarrena Amgalan zegoen, ilea lurrzaletik kanpora zuela, baina honek ere ez zuen objekturik in- guruan. Hirugarrena, 2013an atera genuen hobotik oso gertu zegoen, adineko emakumea zen eta gauza asko aurkitu genizkion aldean: zintzilikarioak, lepokoak, abalorio asko, kolonia flaskoa eta garaiko 1, 5, 25 eta 50 pezetatako Francoren irudidun txanponak. Orotara 690 pezeta. Dirutza zen hori 1976an eta era- kusten du ez zela lapurreta izan.



OROIMENA BERRESKURATZEKO FORMAZIO SAIOAK, HAREAZKO IKASGELAN

Pako Etxeberria auzitegi-medikua eta Laura Pego abokatua (irudian zutik) Saharako herritarrak trebatzen aritu dira oroi- men historikoaren berreskurapenean.

Etxeberriak arlo praktikoa jorratu du gehien bat, hau da, deshobiratze pro- zesua nola egin lehen aztarna aurkitzen denetik azken txostena idatzi arte. Pego- ren lana arlo juridikoari egon da lotuta, nahiz eta beste esparru batzuk ere garatu dituen. Alde batetik justizia transizio- nalaren oinarriak azaldu zituen, hau da balizko trantsizio baten aurrean ezarri beharreko neurriei buruz eta bestetik,

Istanbulgo eta Minnesotako protokoloak izan zituen hizpide. Lehen torturaren erabilpena aztertzeke erabiltzen da, bi- garrenak gorpu bat exekutatua izan ote zen jakiteko balio du.

Metodologia irekia izan da, mahai- in- guruak antolatu eta zalantzak argitzeko asmoz; arazo handienak ahozko testi- gantzekin hainbat informazio jasotzeko orduan izan ohi dituzte. Euskal Herriko torturaren inguruko txostenean oina- rritutako esperientzia ere baliatu zuten Etxeberriak eta Pegok jarraibideak eman ahal izateko.

Itzultzeko asmoa duzue?

Ez bada hobi gehiago aurkitzen, ez, bai- na AFAPREDESaren esku gaude. Dena den, azken bidaia honetako beste hel- buruetako bat hangoak formatzea izan da. Pako Etxeberriak teknika forentseak irakatsi dizkie eta Laura Pegok arlo ju- ridikoa garatu du; ahozko elkarrizketak egiteko teknikak ere ikasi dituzte. Eu- rak lan hori egiteko gai izatea da asmoa, kanpoko laguntzarik gabe. Herri bezala garatzeko, halako gauza txikiekin eman behar dira aurrerapausoak.

Saharako afera geldidagoela dirudi.

Gaur egun Afrikan dauden gatazken ar- tean txikienetakoa da Sahararena, per-

tsona kopurua eta baliabide materialak kontutan hartzen baditugu, behintzat. Hedabideetan gaia ere baztertuta dago, udako umeen bisitek azalarazten ez du- tenean. Badaukagu Kongo, Hego Sudan, Somalia, Mali, islamismoa, migrazioak... Horri begira dago nazioarteko politika eta Saharako auzia ahazteko arriskuan dago. Beraien borrokak izugarritzko ba- besa du arlo materialean, kooperazioan, baina politikoki ezin da ezer egin kan- poko laguntzarik gabe, eta arlo horretan Marokoren posizioa oso gotorra da, ez dirudi hortik pasa gabe inolako kon- ponbiderik egon litekeenik. Mugimendu batzuk badaude, baina dirudenez, auzia luzerako izango dugu. ■